

Alkizako Udal Liburuteia ELSN katalogoan sartu da

ANOETA. DV. Uda honetan Alkizako Udal Liburutegia Euskal Liburutegien Sistema Nazionalean sartu da. Hau dela eta, Udalak Iñaki Goikoetxea kontratatu du liburutegiko material guztia digitalizatu eta katalogo berrian sartu dezan. Iñaki Goikoetxea Historian Lizentzaiatua da eta bibliotekonomia ikasketak ere baditu. Orain arte hainbat liburutegitan egin du lan, hala nola, Asteasukoan eta orain Alkizakoan. Liburutegiko materialaren katalogazioa amaitzeaz du eta orain bazkideen datuak sartzen hasiko da.

Udalak bazkideentzako kanpaina berri bati emango dio hasiera. Goikoetxeak azaltzen duenez orain bazkideentzako txartel berriak egin behar dira eta horregatik bazkideek berriz izen eman behar dute beharrezko datu guztiak jaso ahal izateko. Honengatik, herritar guztiak izen ematera animatzen ditu liburutegiak abantaila ugari dituelako oraingo egoera berriarekin. Katalogo berrian sartu izateak abantaila ugari eskaintzen dizkie erabiltzaileei. Alde batetik sareko sistema honetan sartuta dauden liburutegi guztietako materiala eskuratu ahal izango dituzte eta, bestalde, Interneten ere orrialdea baduenez, etxetik egin ahal izango dituzte liburuaren kontsultak, eskaerak eta materialaren edukitze epea luzatzearen eskaera. Alkizako Udal Liburutegiak mota guztietako materiala eskaintzen du, guztira 8.000 ale inguru herritarren eskura izanez. Gehienbat narratibako materiala dago, 4.000 ale inguru novela, poesia, antzerkia, entsaioak, e.a. Irakurketa liburu hauek haur, gazte zein helduentzako daude. Horien artean daude, Harry Potter eta Bostak liburu sorta famatuak. Haurrek gune zehatz bat dute beraientzako materialarekin. Honetaz gain, kontsulta liburuak ere badaude, hala nola, hiztegiak, entziklopediak eta gai zehatzen inguruko liburuak (medikuntza, sukaldaritza, artea, literatura, historia, biografiak, e.a.). Material gehiena euskaraz dagoen arren, gaztelaniazko materiala ere aurki daiteke. Bazkideak hainbat DVD, bideo eta CD-rom ere izango dituzte eskuragarri. Alkizako Udal Liburutegia urte amaierara arte arratsaldean egongo da irekita astelehenetik ostiralera, eta astelehen eta ostegunetan goizez ere.